

## Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldi bat antolatu du Bidasoako campusean, eskualdeko arazoei irtenbide errealak emateko.

2012/02/24

Bidasoa eskualdeko unibertsitateko, batxilergoko eta lanbide-heziketako 70 ikaslek gizarte-erantzukizunaren inguruko 10 gaietarako buruz gogoeta egiteko aukera izan dute, eskualde horretako arazo errealei irtenbideak emateko.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Mugi-Hadi elkarteko ikasleek eta zenbait irakasleek antolatutako gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldia –otsailaren 22an eta 23an– izan da, Enpresagintza Fakultatearen Bidasoako campusean. Guztira, fakultate horretako 40 ikaslek eta Irungo La Salle institutuko batxilergoko eta lanbide-heziketako 30 ikaslek hartu dute parte. Jardunaldiaren bukaeran, ikasle parte-hartzaileek eskualdeko arazo errealetan oinarrituta aurkeztutako proiektuetan onena aukeratu izan da (argazkiko taldea).

Jardunaldia bat dator Mondragon Unibertsitateak gizartea aldatzeko hartua duen konpromisoarekin. Honako helburu hauek izan ditu: parte-hartzaileek Bidasoa eskualdeko arazoekin lan egitea –Emaus, Bidasoa Activa eta Ekoliderrak aurkeztutakoak- eta horiei irtenbide bat ematea; adin-talde ezberdinetako pertsonen arteko kohesio soziala sustatzea; parte-hartzaileek esperientziak elkarri trukatzeko eta, azkenik, elkarlanean arazo errealetarako konponbideak asmatzea.

### Proposamenik onenarentzako saria

Jardunaldia, otsailaren 22an, hasi zen, gizarte-erantzukizun korporatiboaren esanahiaren inguruko gogoetarekin. Gogoetaren oinarria haxe izan da: enpresa-kudeaketan irizpide etikoak txertatuz ingurunean sortzen diren erroka nagusiei erantzuna ematea, interes-talde guztientzako balioa sortu eta banatzeko.

10:00etatik 11:00etara bitartean, jardunaldiak aurrera jarraitu zuen eta Luxio Ugarte Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen Bidasoako campuseko dekanoren ordez jardunaldiaren helburuak aurkeztu zituen. Aurkezpenaren ondoren, diziplina anitzeko lantaldeak osatu eta Bidasoa eskualdeko arazo nagusiei –sozialei, ekonomikoari eta ingurumenaren arlokoari– heldu zieten. Arratsaldeko saioan, sortutako taldeak arazo horietarako irtenbideak eraikitzen hasi ziren, elkarlanean.

Ostegunetan, hilaren 23an, Emausek parte hartu zuen, gai hau hizpide hartuta: "Badakizu zer den bidezko merkataritza?" Talde-tailerra eskaini zuen horren gainean. Ondoren, taldeek proposamen guztiak azaldu zituzten eta, 11:30 eta 13:30 bitartean, epai-mahaiak hiru finalistak saritu zituen, sektore bakoitzeko bat. Azkenik, jardunaldiko proposamenik onena aukeratu eta talde irabazleari sari berezia eman zitzaion.

